

# Hil eta bizi, hala ere

*La muerte de los allegados conlleva la memoria de los vivos que los recordarán. La sociedad está llena de manifestaciones culturales que evocan la vida de quienes murieron, y de ritos y preceptos organizados relativos a ellos. Esta historia terrena de la muerte se ha expresado no sólo en esquelas, iglesias y cementerios, sino también en testamentarias, legados, monumentos civiles, conmemoraciones anuales de calendario y obras de arte.*

Heriotzak eta hemen bertako heriotza-ondokoek kultura ezberdinetan ardura kezkatia piztu izan dute: erlijioek oso gertutik begiratu dute heriotza. Arteak, psikologiak, antropologiak, zuzenbideak, medikuntzak, zerbitzu sozialek, negozioek eta zer esanik ez filosofiak aintzakotzat hartu izan dute gizakiaren azken gertaera hori. Ondorioz, heriotzak eta heriotzondokoek bizion arteko historia ere badute.

## **Heriotza, kultura eta erlijioetan**

Bizitza bezala heriotza, herrien kulturek era anitzetan ikusi, zaindu eta kudeatu dute, azken batean bizi guztion zerbait baita trantze hori, aurrekoak joan zaizkigulako edo geu zain gaudelako.

Egipto zaharreko kultura dugu beharbada bizien artean heriotzari lekuri nabarmena eman ziona, nolabait ere amesgaizto bat izateraino, hildakoen gorpuk zaintzeko teknikak asmatu eta momiak gordetzeko monumentu erraldoiak jasota. Hori dena zenbaterainokoa izan zen jakiteko, lerro hauek idaztean eskuetan daukat egiptotarren *Hildakoen Liburua* famatua. Osiris zen hildakoen jainko gorena; herritarrek oso maitea zuten eta jendetsuak ziren haren santutegira egiten ziren erromesaldiak.


Greziak ere, bere gisara noski, herritarren sinesmen erlijiosoan eta jakitunen filosofian gogoan izan zuen heriotzaren hau, nola ez. Greziako mito-

logiak bezala pentsamendu berriek begiramenez so egin zioten heriotzari. Heladen kosmos deitua hiru jainko nagusien artean banaturik zegoen: Zeus-enak ziren zeruak, Poseidon-enak itsaso eta urak, Hades-ena zen hildakoen egoitza. Heriotzaren beraren jainkoa Tanatos zela, Hermes "beste mundurako gidariak" eramaten zituen hildakoen arimak egoitza hartara.

Sinesgai mitiko horien ondoan, Grezian pentasari eta filosofoak egon ziren, beren gogoetan heriotzari aurrez aurre begiratu ziotenak, edo bizitzari begiratzean bizialdiak bere baitan duen azken muga horren esanahiaz gogoeta egin zutenak. Gizakiaren oraingo izaeraz eta gerokoaz arduraturik bilatu zioten heriotzari bere esanahia, eta Filosofiako eskola bakoitzak bere baitako arrazoekin koloreztatu zuen heriotzaren ulertzea.

Herriko erlijio-zaletasun arruntak nahiz erlijio eskolatuagoak, biek, izan zuten mundu greko-erromatarrean heriotza pertsonalki eta gizartearen bizitzeko modu araturik. Ezagunak dira erromatarrek hiletak nola egiten zituzten (*funus, exsequiae*), kategoria ezberdinekoak gainera (*f. gentilium/tacitum*). Erroman ere heriotza tradizio mitologikoaren arabera, pentsamendu-eskola ezberdinei jarraituz edo norberak izan zezakeen sinesmenaren argitan ulertzen zuen, noski.

Hildakoen *genius* deitua etxe-etxekoa zen (aldare eta guzti) eta *manes* eta *lares*-ekin batera



familien babesa eta belaun-segidatasuna segurtzen zuten. Kasik esan daiteke teiltupe berean bizi zirela jada joandako hildakoak eta artean bizirik zirenak.

### **Euskal Herriko heriotzak**

Historian zehar, hildakoen mundua beti izan da erlijioekin harreman estuan egon dena, eta gaur egun historialariak ere ikerlan berriak ematen ari zaizkigu eremu honetan. Heriotzaren bi "historiak" –hemengoa eta bestaldekoa, biak– aztertzen ibili gabe, ikertzaile horiek heriotza-aurreko, uneko eta ondoko hemengo historia lurtarra erakusten saiatu dira. Beste ikuspuntu batetik, ahalegin bera egin du euskal Etnografiak.

Orain urte gutxi Nafarroan egin zuten saio on bat bertako historian zehar, Historiaurretik hasi eta Erdi Aroa arte heriotzaren ingurua iraganeko gizarte haietan nola ageri den erakusteko. Ikersaio horretatik erromatarren garaiko albisteak ekarriko ditut hona.

Hasteko, erromatarrek uste zuten –gurean ere bai– hildakoaren sepultura segitzen zuela bizirik arimak; hildakoak, arima erratia ez izateko, sepultura behar zuten, hilobi hornitua etxeko zerak eta janariekin. Gerora, ideia hori grekoen Hades-en hildakoen egoitzaren sinesgaiarekin osatu zuten, eta horrek Beste Munduaz teologia berritua ekarri zuten, mitologia klasikoak zituen jainko, leku, ibilera eta pasadizoekin. Hemengo erromatarren hildakoeiko sineste eta portaerak gure aztarnategietan antzeman eta ulertzeko premiazkoa da erlijiotasun klasiko bere orokorrean ere begiratzea.

Unez une, heriotza-aurrea, gertakaria bera, hilotzaren inguruko erritualak, hiletak, lur-emateko zeremoniak, hilobiaren moldatze eta apaintzeak

erlijiotasun eta ideologia jakinak zituzten. Eta hori dena ospakuntza soziala zen erromatarren artean, eta ez bakarrik herri apalaren ohiturak halakoak edo bestelakoak zirelako, baizik eta guztiak formaltasun instituzional eta soziala ongi eraturatu zuelako.

Nafarroan sei nekropoli edo hilerri erromatar aurkitu dira (horietako bi oso iparraldean, Aurizperrin, eta beste bi hego-hegoaldean, bana Corella eta Funes-Milagron). Horiei bost hilobi isolatu gehitu behar zaizkie. Era berean, orduko 39 hiliarri erromatar ezagutu dira Nafarroan, gehienbat Zangoatik Lizarrara doan eskualde zabal batean, Tafallatik behera hiru bakarrik ditugula (Erriberrin, San Martin Unx eta Zarrakastelu).

Hilobia erlijiozko zerbait zen, legeek zaintzea eskatzen zutena. Horretarako elkarrekin zeuden, gainera. Hilarrietako latinezko idazkunek erakusten digute, gaur ere, gerokoak nolako uste eta kezka zituzten hildakoen familia eta lagunek.

Ehorzketa eta hilobiak herritik kanpora egin eta eratzten ziren orduan, herriz kanpoko hilerrietan. Aipatutakoez gainera, Nafarroan hiru hilerri erromatar ditugu Corella, Eslaba eta Alesbes-en. Gure itsasaldean, Irungo Ama Xantalengo hilerria ere gogora ekar dezakegu.

Horrek guztiak lagun dezake hemengo erromatarren "tanatologia" gertuagotik begiratzen. Hilarriek, esate baterako, beren marrazki, irudi eta idazkunen bidez hildakoen eta bizien garaiko gizarteaz hitz egiten digute.

Gure urteak arte iritsi diren euskal hiliarri eza-gunak tradizio zahar hartatik ere badatoz, nahiz eta modu batera edo bestera hiliarren historia hau hemengoa ez ezik gizadi osoarena ere baden.

***Joseba Intxausti***